



EBAZPENA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2024KO EKAINAREN 28KOA. EBAZPEN HONEN BIDEZ ARGITARA EMATEN DIRA BEHIN BETIKO IZAERAREKIN FISIOTERAPEUTA, TERAPEUTA OKUPAZIONAL, HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTA, TRANSKRIBATZAILE EDO MATERIALAREN EGOKITZAILE ETA ZEINU-HIZKUNTZAKO INTERPRETE KATEGORIETAKO ORDEZKOGAIEK TELEMATIKOKI ESKATU DITUZTEN LURRALDE HISTORIKOEN, DESTINOAREN ETA LANALDI MOTEN AUKEREN ALDAKETAK, 2024-25KO IKASTURTERAKO ESLEITZEKO PROZEDURA TELEMATIKOARI DAGOKIONEZ.

2024ko ekainaren 17ko ebazpenaren bidez, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, epea eta prozedura ezarri zen fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietako ordezkogaiak lurralde historikoen, destinoaren (bakarrik lanaldi partzialentzat) eta lanaldi motaren inguruan eginda zituzten aukerak aldatu ahal izateko, 2024-25 ikasturterako esleipen-prozedura telematikoei dagokienez.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, 2024ko ekainaren 25ko ebazpenaren bidez, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, argitara eman ziren behin-behineko izaerarekin eskaerak dagokion epean eta forman aurkeztu zuten pertsonen aukerak Lurralde Historiko, destino (bakarrik lanaldi partzialentzat) eta lanaldi motei dagokienez. Erreklamazio epea ekainaren 25tik ekainaren 26ra izan zen, biak barne.

Horren arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Aurkeztutako erreklamazioak.

Aurkeztutako erreklamazioen zerrenda argitaratzea, aintzat hartu diren ala ez eta zergatik adierazita. Ebazpen honen III. eranskinean agertzen da zerrenda.

Bigarrena.- Onartutako eskabideak. Egindako aukeren argitaratzea.

Ebazpen honen bidez argitara ematen dira behin betiko izaerarekin ordezkogaiak lurralde historikoen, destinoaren (bakarrik lanaldi partzialentzat) eta lanaldi-motaren inguruan egin dituzten aldaketak 2024-25 ikasturterako lanpostuak era telematikoan esleitzeko prozesurako, 2019ko ekainaren 4ko Aginduak ezarritakoari jarraiki, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez lanpostuaren adjudikazioa arautzen baitzaie fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnei, eta zeinaren bidez ezartzen baita lan-kontratudun langile finkoei, mugagabe ez-finkoei eta bitartekoei zentroen urteko esleipena egiteko prozedura, fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan.

Onartutako eskabideak I. Eranskinean jasotzen dira, kategoriaka.

Hirugarrena.- Ez onartutako eskabideak.

Ez dira onartzen, objekturik ez dagoelako, II. eranskinean zehazten diren pertsonen eskabideak, ez baita lurralde historikorik hautatu.



II. eranskin horretan zerrendatutako langileek, 2024ko ekainaren 27rako (ZHIko kategorian abuztuaren 21erako) prest lan-egoeran badaude, birbaremazio-prozesuan hautatutako aukerekin parte hartuko dute.

Lurralde historikoaren, destinoaren eta lanaldi motaren aukerak aldatzeko prozesu honen helburua ikasturte hasierako esleipenean parte hartzeko aukerak aldatzea da, baina ez lan-egoera aldatzea.

Lan-egoera aldatu nahi izanez gero, "prest" egoera ez den beste batean jartzeko, mezu elektronikoa bat bidali behar duzu lurralde historiko bakoitzeko helbide hauetara: arabaei@euskadi.eus, eigipuzkoa@euskadi.eus eta bizkaiaei@euskadi.eus.

Posta elektronikoa horretara idazki sinatua eta NANaren kopia aurkeztu beharko dira, bai eta eskatutako aldaketa egiaztatzen duen dokumentazioa ere.

Laugarrena.- Ondorioak.

I. Eranskinean jasotzen diren pertsonak 2024-25ko esleipen-prozedura telematikoa parte hartuko dute bertan jasotzen diren lurralde historiko, destino (bakarrik lanaldi partzialentzat) eta lanaldi motarekin.

Prozesu hori bukatu ondoren, fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinuhizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda birbarematzeko prozesuan adierazi zituzten aukerekin jarraituko dute 2024-25ko ikasturtean eskatzaileek. Aukera horiek 2024-25ko ikasturtean ordezkapenak egiteko Hezkuntza Sailak argitara eman duen ordezkogaien behin betiko zerrendan jasota agertuko dira.

Hala ere, kasu guztietan, bakarrik lanpostu bat esleituko zaio ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte diren horiek esleipen-prozesu telematikoa eskaerak egiten hasteko epea hasi baino hiru egun lehenago prest moduan badaude, lan-egoera hori eskaerak aurkezteko epea baino hiru egun lehenago aldatzeko aukera izango dute dagokion dokumentazioa aurkeztuz.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko ekainaren 28an.

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

BLANCA GUERRERO OCEJO